

**BIZITEGI ERAIKINAK  
B MAILA****GETARIA 2 BIKOIZTUA****Ramon Kortazar, 1900 eta 1916.****Deskribapena**

Eraikin honek halako izaera monumental bat du, etxadiko bizitegi zatiko esku hartze unitario baten parte delako. Jarduketa hau hiriko bilbean aldaketa bat sartzeagatik nabarmentzen da; izan ere plaza txiki bat eratzen du, angeluan, bankurako sarbide gisa, eta horrek indarra ematen dio, era berean, fatxadari. Eraikinaren egungo urbanizazioa Elizalderen 1950eko proiektuari dagokio. Obra biak, bizitegi eraikina eta bankua, Ramon Kortazar arkitektoarenak dira, baina estilo desberdinetan daude eginda. Etxebizitzaren proiektua 1916koa da, eta 1921ean amaitu zuten, Urkolak eta Ezeizak proiektatutako Hotel du Palais zaharraren parte bat hartuz. Hartzeko fatxadak eta hormigoizko egitura ditu. Beheko solairua eta goiko bost solairu dauzkate, ertzeko etxeetan (3) eta mehelin artekoetan (2) banatuta, bost guztira alegia, bitzta bat edo biz eskailera-guneko, eta sakontasun eta eremu handia hartuz tarteko patio txikien laguntzarekin. Getaria kaleko 2 z.k. bikoiztua mehelin arteko eraikin bat da, etxebizitza bakarrekoa solairuko. Etxadia bertako fatxadetan apaingarri txiki ugari daudelako nabarmentzen da, eragin frantsesa duen eklektizismo baten barruan, barra-barra apainduak baina kalitatezko materialekin. Eraikinaren goialdean apaindurako hainbat elementu aurki daitezke. Horien artean zeramikako estaldurak nabarmentzen dira. Etxabe komertzialen parte bat neurriengatik eta akaberen aberastasunagatik nabarmentzen da. Zenbaki hori duen atariak itxuraketa zaindua du, eta aipatzeko moduko eraikuntza-kalitatea, multzoko beste lau atarien mailara iristen ez bada ere.

**B mailako babes erregimen espezifikoa**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeriak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak, goialdeko apaindura emokatuak eta estaldura zeramikoak, etxabe komertzialak harrizko estaldurak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: Jatorrizko dorreak, kupulak eta mantsardak mantentzea. esku hartze unitatea Hondarribia 01, Getaria 02 eta 02 hirukoiztua, eta San Martzial 26rekin. ataria aldatarik gabe gordeko da, jatorrizko elementu guztiekin batera.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.